



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Radium Girls

Orange (New Jersey, AEB) 1917. U.S. Radium Corporation enpresak fabrika berri bat zabaldu zuen, Undark (ez-iluna) izeneko pintura erradioaktibo distiratsuez erlojuetako orratzak eta zenbakiak margotzeko. 1920an beste fabrika bat zabaldu zuten Illinoisen eta, aurrerago, hirugarrena Connecticuten. Ilunpean ikus zitezkeen ordulariak luxuzko salgai bitxiak ziren, Lehen Mundu Gerrak oso erabilgarriak zirela frogatu zuen arte. Hala, erakunde militarren eskaera geroz eta handiagoari erantzuteko, 100dik gora langile kontratatu zituzten New Jerseyko egoitzarako, gehienak emakumeak edo neska gazteak –11 urteko neskatok ere aritu ziren fabrikari–, esku txikiagoak eta trebeagoak omen zituztelako lan horretarako.

Enpresak lelo bat ere sortu zuen neskek erabili beharreko teknika laburbilduz: *Lip, dip, paint* (Ezpain, murgildu, margotu). Hau da, lehenik pintzela ahora eraman behar zuten, punta ezpainez bustita, lana zehatzagoa zelako; gero pintzela Undark pinturan sartu zuten eta, azkenik, erlojuaren esfera margotu. Behin eta berriro. Radioarekin lanean aldi batean jardun ondoren, langileen arropak eta gorputzak ilunpean distira egiten hasi ziren eta *ghost girls* edo “neska mamuak” esaten zieten orduan; gero, bizitza hondatu zien mamua taula periodikoan 88 zenbaki atomikoa duen elementua zela salatu zutenean, *radium girls* edo “radio neska” esango zieten.



EMAKUMEAK PINTURA ERRADIOAKTIBOAREKIN
LANEAN, INOLAKO BABESIK GABE.

DAILY HERALD

Enpresako arduradunek ordurako bazekiten radioa oso arrisksua zela. Bestela, zuzendaritzako kideek eta ikerlariak –denak gizonezkoak–, radiora hurbiltzean, zergatik erabiltzen zituzten maskarak, pantailak eta antzeko babes elementuak? Behin, Sabin A. Von Sochocky pintura erradioaktiboaren asmatzaileak bisita egin zuen fabrikara eta asaldatu egin zen nesken baldintzak ikusita, baina arduradunek lasai egoteko eta berdin jarraitzeko esan zieten langileei.

Ilunpean distira egiteaz gain, neskek sintoma fisikoak sentitzen hasi ziren behala: nekea, anemia, hortzak erortzea,

hezurrak haustea... Enpresak ordaindutako medikuek askotariko diagnostikoak egin zizkieten, baina sekula ez zuten gertatzen ari zena radioarekin lotu. Amelia Maggia izan zen erradioaren ondorioz hiltzen lehena. 24 urte zituen eta, ofizialki, sifilisak jota hil zen. Sifilisa askotan erabiliko zuten egoera salatzen hasi ziren neskek gutxies-teko eta erantzukizuna saihesteko.

Orangeko Grace Fryer izan zen kasua epaitegietara eramaten lehena; beste lau lankidek harekin bat egin zuten aurrerago. Bitartekorik gabe, oso zaila zen enpresa handi baten aurka egitea eta haien alde lan egingo zuten abokaturik ere ez zuten lortu bi urte luzez. Inflexio puntua biktimen zerrandan gizonezko bat sartu zenean iritsi zen, 1928an, Von Sochocky, pintura asmatu zuen bera, hil zenean. Orduan hasi ziren onartzen arazoaren iturburu radioa zela. Urte berean irabazi zuten epaiketa New Jerseyko langileek. Illinoiseko langileek ere antzeko bidea egingo zuten eta 1938an lortu zuten aldeko sententzia. Dirutan jasotako kalte-ordainek ezer gutxirako balio izan zien, bidean galdu ez zirenak hilabete gutxiren buruan hilko baitziren. Baina, behintzat, langileen osasuna babesteko legeak bultzatzeko balio izan zuen.

La mende oso bat eta gero, radio nesken gorpuzkinek oraindik distira egiten dute beren hilobietan. Urrian *Radium Girls* (2018) filma estreinatu berri da, eta orain behintzat haien historia lazgarriak distira egiten du pantailan. ●

Arraina ala haragia?

Duela 1.800 eta 1.000 urte bitartean kostalde amazonikoan bizi ziren komunitateek nolako dieta zuten aztertu berri du *Tradition* proiektuko nazioarteko ikerlari talde batek, Europako Ikerketa Kontseiluak finantzatuta. Hezur arrastoen isotopoak aztertuz ondorioztatu dute Amazoniako biztanleek uste baino arrain gutxiago eta haragi gehiago jaten

zutela; besteak beste, ugaztun karraskarien, oreinen eta arrain katuen arrastoak identifikatu dituzte. Komunitate haien dietaz gehiago jakiteaz gain, ekonomia hobeto ezagutzeko aukera ematen dute emaitzak: nekazaritzan eta ehizean jarduten zuten, eta arrantzan ere aritu arren, jarduera horrek ez zeukan orain arte uste bezainbeste ko garrantzirik. ●



BARTZELONAKO UNIBERTSITATE AUTONOMOA